TV
931

FUNDACION
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA

M-13781 / R-37630
ATV 18.931

# DOCTRINA CRISTIANA

AITA GASPAR ASTETE JESUITAC ERDERAZ CONPONDUA IPIÑI ZUAN EUZQUERAZ

**D. Juan de Irazusta**

Erretore Hernialdecoac ceña dan provincia Guipuzcoacoan, eta añaditución Encarnacioco eta Eucaristiaco Misterioen esplicacioa; baita ere confesio onaren condicioac eta Acto Fedeco, Esperanzaco eta Caridadecoac.

DONOSTIAN:
Miguel Ramos'en Liburuteguia
Bergara - carrican, 5'gn
1932



# AVISOA

## PECATARI GUZTIENTZAT ONA

Utzi ezazu, pecataria,
len baño len pecatua
aparta zaite ocasiotic,
señean zauden sartua.

Izan diteque gaurco gabean
zure oyean iltzea,
bai ta ere biyar baño len
infernuetan sartzea.

Utzi ditzagun bicio oec,
zeñac gauzcaten galduric
eta escatu barcacioa
Jaungoicoari bertatic.

Liburu onetan esaten dana
sinistu eta obratu,
goza dezagun beti gloria,
an gaitezen descansatu.

# DOCTRINA CRISTIANAREN

## SARRERA

Cristau fiel guztiac
daude obligatuac
gurutzea adoratzera
eta debozio izatera:
zergatic Cristoc an
salbatu guinduan
gure pecatuetatic
ta etsaiaren mendetic.

Argatic zaite jarri
santiguatzea sarri
baita ere ziñatzena,
iru gurutze eguitera;
becoquian lenena,
aoan bigarrena,
bestea bularretan,
iru lecu oyetan.

Becoquian libratzeagatic,
pensamentu gaiztoetatic,
aoan libratzeagatic
itz gaiztoetatic,

bularretan libratzeagatic
obra ta deseo gaiztoetatic,
eguin bada bereala
esaten dezula onela:

Gurutze santuaren señaleagatic gure etsaietatic † libra gaitzatzu gure Jauna eta Jaungoicoa † Aitaren, ta semearen, ta Espiritu Santuaren izenean. † Amen Jesús.

## PATER NOSTERRA

Aita gurea, zeruetan zaudena, santificatua izan bedi zure izena, betor gugana zure erreinua, eguin bedi zure borondatea; nola zeruan ala lurrean.

Eman iguzu gure egunerоco oguia eta barca guizquiguzu gure zorrac gue gure zordunai barcatzen diegun bezela, eta ez gaitzatzula utzi tentazioan erortzen, baizican libratu gaitzatzu gaitzetic. Amen Jesús.

## AVE MARIA

Ave Maria, graziaz betea, Jauna da zurequin, bedeincatua zerade zu andre guztien artean, ta bedeincatua da zure zabeleco frutua Jesús.

Santa Maria, Jaungoicuaren Ama erregutu ezazu gu pecatariagatic, orain eta gure eriotzaco orduan. Amen.

## CREDOA

Nic sinisten de Jaungoico Aita guztiz poderosoa, zerubaren eta lurraren criadoreagan. Eta aren Seme bacar Jesucristo gure Jaunagan, z ña conzebitu zan Espiritu Santuaren obraz ta birtutez, jayo zan Maria Birgiñagandic, padezitu zuan Ponzio Pilatosen aguinteoren azpian, izandu zan cruzificatua, illa ta enterratuba,

Jechi zan infernuetara, piztu zan illen artetic irugarren egunean. Igo zan zeruetara, an dago eseriric Jaungoico Aita guziz poderosoaren alde escubitic. Andic etorrico da biziac eta illac juzgatzera. Nic sinisten det Espiritu Santuagan, Eliz Ama Santa Catolica, Santuen Comunioa, pecatuen barcazioa, araguiaren resurrezioa eta bitzitza seculacoa. Amen.

## SALVEA

Jaungoicoac salba zaitzala, Erreguiña misericordiaren Ama, bizitza dulzura ta esperantza gurea, Jaungoicoac salba zaitzala. Zuri deiez gaude Ebaren ume desterratuac. Zugana daude suspirioz, sentimentuz eta negarrez, negarrezco lecu onetan. Ea bada, gure abogada, itzuli itzatzu gugana zure begui misericordioso oyec, ta destie-

rro onetatic irtenten gueradenean eracutsi eguiguzu Jesus zure sabeleco frutu bedeincatua. ¡Oh clementísima! ¡Oh piadosa! ¡Oh misericordiosa! ¡Oh dulze Birgiña Maria! Erregutu ezazu gugatic, Jaungoicoaren Ama Santa, merezi dezagun alcantzatzea Jesucristoren promesac. Amen.



# JAUNGOICOAREN LEGUECO

MANDAMENTUAC DIRADE AMAR

Lenengoz irurac pertenezitzen zaizca Jaungoicoaren onrari, eta beste zazpirac projimuaren probechuari.

Lenengoa, Jaungoicoa amatzea gauza guztien gañean.

Bigarrena, juramentu alferric ez eguitea.

Irugarrena, jai egunac santificatzea.

Laugarrena, aita ta ama onratzea.

Bostgarrena, iñor ez iltzea.

Seigarrena, lujuriaco pecaturic ez eguitea.

Zazpigarrena, ez ostutzea.

Zortzigarrena, testimonio falsoric ez jasotzea eta guezurric ez esatea.

Bederatzigarrena, projimoaren emazteric ez deseatzea.

Amargarrena, besteren gauzaric ez deseatzea.

Amar mandamentu oec enzerratzen dirade bitan: serbitzea eta amatzea Jaungoicoa gauza guzien gañean, ta projimoa, gure buruac bezela.

## ARTICULO FEDECOAC

### DIRADE AMALAU

Lenengo zazpirac pertenezitzen zaizca Dibinidadeari, eta beste zazpirac gure Jaun Jesucristo

Jaungoico eta guizon eguiazcoaren umanidade santuari.

DIBINIDADEARI PERTENEZITZEN

ZAIZCANAC DIRA OEC

Lenengoa, sinistea Jaungoico guziz poderoso bacar bategan.

Bigarrena, sinistea Aita dala.

Irugarrena, sinistea Semea dala.

Laugarrena, sinistea Espiritu Santua dala.

Bostgarrena, sinistea Creadorea dala.

Seigarrena, sinistea Salbadorea dala.

Zazpigarrena, sinistea Glorificadorea dala.

UMANIDADEARI PERTENEZITZEN

ZAIZCANAC DIRA OEC

Lenengoa, sinistea Jesucristo gure Jauna guizona dan partetic conzebitu zala Espiritu Santuaren obraz.

Bigarrena, sinistea jayo zala Santa Maria Birgiñagandic Señora au zala Birgiña, Cristo jayo baño len, jayotzean eta jayo ezquero.

Irugarrena, sinistea errecibitu zituala eriotza ta pasioa gu pecatariac salbatzeagatic.

Laugarrena, sinistea jechi zala infernuetara eta aren etorrera santuari ichedoten zeuden anima justuac libratu zituala.

Bostgarrena, sinistea resuzitatu zala illen artetic irugarren egunean.

Seigarrena, sinistea igo zala zeruetara eta dagoala esiric Jaungoico Aita guziz poderosoaren alde escuitic.

Zazpigarrena, sinistea etorrico dala biziac eta illac juzgatzera; auda, onai ematera gloria, zeren aren mandamentuac gorde zituen, eta gaiztoai pena seculacoa, zeren gorde ez zituen.

# DOCTRINA CRISTIANAREN

## DECLARAZIOA

### GALDETZEN ETA ERANTZUTEN DALA

Galdetzen det: ¿Zerade Cristaba?
Erantzuten det: Bai, Jauna, Jaungoicoaren graziz.
G. Cristabaren izen ori norgandic izan zenduan?
E. Cristo gure Jaunagandic.
G. Zer esan nai du Cristaubac?
E. Cristoren guizona.
G. Zer aditzen dezu Cristoren guizonagatic?
E. Cristoren fedea duan guizona, zeña errezibitu zuan bataiatzean ta dagoan ofreziturie aren serbizia santura.
G. Zer da cristabaren señalea?
E. Gurutze Santua.

G. Zergatic?

E. Zergatic dan Cristo cruzificatuaren figura, bada gurutzean redimitu guinduzen.

G. Zenbat modutan eguiten du cristabac señale au?

E. Bitan.

G. Zein dirade?

E. Ziñaitzea eta santiguatzea.

G. Zer gauza da ziñatzea?

E. Iru gurutze eguitia escuico escuaren aurreneco beatzarequin; lenengoa becoquian, bigarrena aoan, irugarrena bularretan, itz eguiten dala Jaungoico gure Jaunarequin.

G. Eguin ezazu nola:

E. Gurutze Santuaren señaleagatic † gure etseyetatic † libra gaitzazu, gure Jaun eta Jaungoicoa. †

G. Zergatic ziñatzen zerade becoquian?

E. Libratzeagatic Jaungoicoac pensamentu gaiztoetatic.

G. Zergatic aoan?
E. Libratzeagatic Jaungoicoac itz gaiztoetatic.
G. Zergatic bularretan?
E. Libratzeagatic Jaungoicoac obra eta deseo gaiztoetatic.
G. Zer da santiguatzia?
E. Eguitea gurutze bat escuico escuaren beatz biaquin, becoquitic bularretaraño, ta sorbalda ezquerrecotic escuicoraño deitzen zaiola Trinidade Santisimoari.
G. Eguin ezazu nola:
E. Aitaren eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. † Amen Jesús.
G. Noiz eguin bear dezu señale au?
E. Obra orren bat asitzen dan guztian edo arquitzen naizenean nezesidade, tentazio edo peligroren batean; prinzipalmente oetic jaiquitzean, echetic irtetean, elizan sartzean; jatecoracoan eta lo eguiteracoan.
G. Zergatic orren beste bider?

E. Zergatic denpora eta lecu guztietan gure etsaiac perseguitzen gaituen.

G. Zer etsai dire oriec?

E. Mundua, demonioa eta araguia.

G. Esan eguidazu bada: Gurutzeac bada birtutea etsai orien contra?

E. Bai, jauna.

G. Nundic izan zuan gurutzeac birtute ori?

E. Benzitzeagatic Cristo gurutzean etsai oiec bere eriotzarequin.

G. Gurutzea adoratzen dezunean zer esaten dezu?

E. Adoratzen eta bedeincatzen zaitut Cristo, zergatic zure gurutze santuarequin redimitu zenduen mundua.





# DOCTRINA CRISTIANAREN

## PARTIZIOA

Icusi det Cristaba zerala cristabaren izenagatic eta señaleagatic. Esan eguidazu orain.

G. Zenbat gauza jaquin bear ditu cristabac uso arrazoizcoa izatera allegatzen danean?

E. Lau gauza.

G. Zein dirade?

E. Jaquitea zer sinistu bear duan, zer orazio eguin bear duan, zer obratu bear duan eta zer errezibitu bear duan.

G. Nola jaquingo du zer sinistu bear duan?
E. Jaquiñarequin credoa ta articulo fedecoac.
G. Nola jaquingo du zer orazio eguin bear duan?
E. Jaquiñarequin Pater nosterra ta elizaco beste orazioac.
G. Nola jaquingo du zer obratu bear duan?
E. Jaquiñarequin Jaungoicoaren legueco mandamentuac, Eliza Ama Santarenac eta obra misericordiazcoaz.
G. Nola jaquingo du zer errezibitu bear duan?
E Jaquiñarequin Eliza Ama Santaren Sacramentuac.

✝

# DOCTRINA CRISTIANAREN

## LENENGO PARTEA

**Zeñean declaratzen diraden Credoa eta Articuluac**

G. Norc esan zuan Credoa?
E. Apostoluac.
G. Certaco?
E. Gure Fede santuco gauzac eracusteco.
G Ta zuc zertaco esan dezu?
E. Cristabac degun fede au confesatzeco.
G. Zer gauza da fedea?
E. Icusi es deguna sinistea.

G. Icusi zenduan zuc Cristo jayotzen?

E. Ez jauna.

G. Icusi zenduan iltze edo zeruetara igotzen?

E. Ez jauna.

G. Sinisten dezu?

E. Bai jauna, sinisten det.

G. Zergatic sinisten dezu?

E. Zergatic Jaungoicoac errebelaturic, Eliza Ama Santac onela eracusten digun.

G. Zer gauza dira cristabac bezela dituzunac eta sinisten dituzunac

E. Ama Eliza Santa Erromacoac dituanac ta sinisten dituanac.

G. Zer da zuc eta Erromaco Elizac dezuena eta sinisten dezuena?

E. Articulo fedecoac, prinzipalmente Creduan dauden bezela.

G. Zer gauza dirade articulo fedecoac?

E. Dirade fedeco misterioric prinzipalenac.

G. Zertaraco dirade articulo fedecoac?

E. Emateco notizia Trinidade Santisimoarena eta gure Redentore Jesucristorena.

G. Nor da Jaungoicoa?

E. Da gauza bat esan eta pentsatu alditequean baño ere excelenteagoa ta admirableagoa; Jaun bat infinitamente poderosoa, sabioa, justua, principioa ta fiña gauza guztiena.

G. Trinidade Santisimoa nor da?

E. Da Jaungoicoa bere, Aita eta Semea, eta Espiritu Santua iru persona diferenteac eta Jaungoico eguiazco bat.

G. Aita Jaungoicoa da?

E. Bai jauna.

G. Semea Jaungoicoa da?
E. Bai jauna.
G. Espiritu Santua Jaungoicoa da?
E. Bai jauna.
G. Iru Jaungoico dira?
E. Ez da Jaungoico eguiazco bat baizic.
G. Aita Semea da?
E. Ez jauna.
G. Espiritu Santua da Aita edo Semea?
E. Ez jauna.
G. Zergatic?
E. Zergatic personac dirade diferenteac Jaungoico eguiazco bat bada ere.
G. Nola da Jaungoico guziz poderosoa?
E. Zargatic bere nai izatearequin, beste gabe, eguin duan nai duan guztia.
G. Nola da Criadorea?

E. Zergatic ezerezetic eguin zituan gauza guztiac.

G. Nola da Salbadorea?

E. Zergatic ematen digun grazia ta barcatzen dizguigun pecatuac.

G. Nola da Jaungoico glorificadorea?

E. Zergatic ematen dion gloria aren grazian irauten duanari.

G. Jaungoicoac badu gorputzaren figuraric gue bezela?

E. Ez du Jaungoicoa dan partetic, zergatic dan espiritu purua baña badu guizona dan partetic.

G. Iru personetatic zein eguin zan guizon?

E. Bigarrena, zeña dan Semea.

G. Aita eguin zan guizon?

E. Ez jauna.

G. Espiritu Santua eguin zan guizon.

E. Ez jauna.

G. Zein eguin zan bada?

E. Semea bacarric, zeñari guizon eguiñic deritza Jesucristo.

G. Beraz orrela nor da Jesucristo?

E. Da Jaungoicoaren Seme bizia, guizon eguin zana gu salbatzeagatic eta nola bizi eracustzeagatic.

G. Zer ezan nai du Jesusec?

E. Salbadorea edo libratzallea.

G. Zergatic salbatu edo libratu guinduzen?

E. Gure pecatuetatic eta demonioaren mendetic.

G. Zer esan nai du Cristoc?

E. Untatua.

G. Zer esan nai du Cristoc?

E. Untatua.

G. Zertzaz izandu zan untatua?

E. Espiritusantuaren graziaz eta doaiaz.

G. Cristo gure Jauna nola izandu zan concebitua ta jayo zan Ama Birgiñagandic?

E. Eguiten zuala Jaungoicoac obra milagrosoa.

G. Ta Cristoren Ama gueros beti izandu zan Birgiña.

E. Bai jauna, beti izandu zan Birgiña.

G. Zergatic nai izandu zuan ill gurutzean?

E. Gu pecatutic eta eriotzatic libratzeagatic.

G. Zer aditzen dezu Cristo ill ezquero jechi zala infernuetara?

E. Ez det aditzen condenatuen lecura, baizican Linbora justuac zeudenera.

G. Nola jechi zan?

E. Cristoren anima Jaungoicotasunarequin unituric.

G. Ta gorputza nala gelditu zan?

E. Jaungoicotasunarequin berare quin unituric.

G. Nola pistu zan irugarren egunean?

E. Biurtzen ziradela juntatzera aren gorputza eta anima glorioasoa ez geiago iltzeco.

G. Nola igo zan zeruetara?

E. Bere birtute propioarequin.

G. Zer da egotea eseriric Aita Jaungoicoaren alpe escuitic?

E. Izatea Aitac ainbat g'oria Jaungoicoa dan partetic, eta guizona dan partetic, beste guziac baño geyago.

G. Noiz etorrico da bisiac eta illac juzgatzera?

E. Munduaren azquenean edo acaberan.

G. Ta orduan ill guziac bear dute piztu?

E. Bai jauna, izandu zitusten anima ta gorputzarequin berarequin.

G. Zer siñisten dezu esaten dezunean siñisten det Santuen Comunioa?

E. Cristau fiel guztiac dutela parte besteen ondasun espiritualetan, gorputz baten miembroac bezela zeña dan Eliza.

G. Zer da Eliza?

E. Da cristau fielen congregacioa zeñaren burua dan Erromaco Aita Santua.

G. Nor da Aita Santua?

E. Da Cristoren Bicarioa lurrean, zeñari guztioc gauden obligatuac obeditzera.

G. Sinisten dezu credoa eta articuluaz gañera beste gauzaric?

E. Bai jauna, Escritura sagraduan dagoana ta Jaungoicoac Elizari errebelatu zion guztia?

G. Zer gauza dirade oriec?

E. Ez dirazula ori galdetu neri bada naiz ignorantea, baditu Eliza Ama Santac doctoreac, jaquingo dutenac erantzuten.

M. Ongui diozu, bada doctoreac bear due eman contu gure fede santuco gauza guztiena eta ez zuc; zuretzat asco da ematea articuluena credoan dauden bezela.



# DOCTRINA CRISTIANAREN

## BIGARREN PARTEA

---

**Zeñean declaratzen dan zer escatu bear dan eta Eliza Ama Santuaren Orazioac**

Ecusi det nola daquizun zer sinistu bear dezun zeña dan lenengo jaquin bear dan gauzea, guazen bigarrenera, zeña dan zer escatu bear dan jaquitea. Esan ezazu:

G. Norc esan zuan Aita gurea?
E. Jesucristoc bere aotic.
G. Zertaraco?
E. Guri orazio eguiten eracusteco.
G. Zer da orazio eguitea?
E. Da jasotzea biotza Jaungoicoagana eta escatzea mesedeac.
G. Pater nosterra esaten dezunean nurequin itz eguiten dezu?
E. Jaungoico gure Jaunarequin.
G. Nun dago Jaungoico gure Jauna?
E. Lecu guzietan, espezialmente zeruan eta Sacramentu Santu Aldarecoan.
G. Zein da orazioetan onena?
E. Aita gurea.
G. Zergatic?
E. Zergatic Apostoluac escatu eta esan zuan Jesucristoc bere aotic.
G. Zergatic gueyago?

E. Zergatic dituan zazpi petizio caridade guzian fundatuac.

G. Zein dirade?

E. Lenengoa, santificatua izan bedi zure izena.

G. Zer escatzen dezu petizio orretan?

E. Jaungoicoaren izena izan dedilla esagutua eta onratua mundu guztian.

G. Zein da bigarrena?

E. Betor gugana zure erreinoa.

G. Zer escatzen dezu petizio orretan?

E. Reina dezala Jaungoicoac gure animentan emen lurrean graziarequin eta guero eman dizagula gloria.

G. Zein da irugarrena?

E. Eguin bedi zure borondatea nola zeruan ala lurrean.

G. Zer escatzen dezu petizio orretan?

E. Eguin dezagula Jaungoicoaren borondatea lurrean gaudenac bienabenturaduac zeruan eguiten duen bezela.

G. Zein da laugarrena?

E. Eman iguzu gure eguneraco oguiya.

G. Zer escatzen dezu petizio orretan?

E. Eman dizagula Jaungoicoac gorputzarentzat mantenu conbeni saiguna, ta animarentzat graziaren mantenu espirituala ta Sacramentuac.

G. Zein da bostgarrena?

E. Barca guizquigutzu gure zorrac guc gueren zordunai barcatzen diegun bezela.

G. Zer escatzen dezu petizio orretan?

E. Barca deguizquigula Jaungoicoac gure pecatuac guc barcatzen diegun bezela agrabiatu

gaituenai eta gaizqui eguin digutenai.

G. Zein da seigarrena?

E. Ez gaitzazula utzi tentazioan erortzen.

G. Zer escatzen dezu petizio orretan?

E. Ez deigula utzi Jaungoico gure Jaunac erortzen eta consentitzen pentsamentu eta tentazio gaiztoetan.

G. Zein da zazpigarrena?

E. Baizican libratu gaitzazu gaitzetic.

G. Zer escatzen dezu petizio orretan?

E. Libra gaitzala Jaungoico gure Jaunac animaco eta gorputzeco gaitz eta peligro guztietatic.

G. Zergatic esaten dezu lenengo, Aita gurea zeruetan zaudena?

E. Jasotzeco biotza Jaungoicoagana eta escatzeco mesedeac umildade eta confiantzarequin.

G. Zer esan nai du itz Amen azquenean añaditzen dezu arc?

E. Ala izan dedilla.

G. Zer orazio esaten diozcatzu prinzipalmente Birgiña Soberanari.

E. Abe Maria eta Salbea.

G. Esan ezazu: norc esan zuan Abe Maria?

E. Aingueru San Gabrielec Maria Birgiña bisitatzera etorri zanean

G. Norc esan zuan Salbea?

E. Ama Elizan Santac, zeña daducan errecibituric.

G. Zertaraco?

E. Faboreac escatzeco Ainguerucn erreguiña Maria Santisimari.

G. Abe Maria edo Salbea esaten dezunean norequin itz eguiten dezu?

E. Gure Señora Maria Birgiñarequin.

G. Nor da gure Señora Maria Birgiña?

E. Da Señora birtutez eta graziaz bete bat, zeña da Jaungoicoaren Ama eta dagoana zeruan.

G. Eta aldarean dagoana nor da?

E. Da zeruan dagoanaren imajiña ta semejantza bat.

G. Zertaco dago an?

E. Aldarean dagoana icusi eta acorda gaitezen zeruan dagoanaz, eta zergatic dan aren imajiña erreberenciatu dezagun.

M. Au bera eguin bear dezu beste Santuaren imajiñaquin.

G. Eguin bear diegu orazio Santuari ere?

E. Bai jauna, gure medianero edo faborezitzalleai bezela.

G. Zer gauza dira Aingueruac?

E. Dirade espiritu bienabenturadu batzuc, daudenac zeruan Jaungoicoac gozatzen.

G. Zertaco criatu zituan Jaungoico gure Jaunac?

E. Eternidade guztian alabatu eta bedeincatu dezaten.

G. Zertaco gueyago?

E. Aren Ministroac bezela goberna dezaten Eliza, ta gorde ditzaten guizonac.

G. Beraz badezu zuc Aingueru guardacoa?

E. Bai jauna, badet, eta guizon bacoitzac du bere Aingueru guardacoa.

M. Izan eguiozu bada debozio, eta erregutu eguiozu egunero falta gabe.

# Doctrina Cristianaren

## IRUGARREN PARTEA, ZEÑEAN DECLARATZEN DAN ZER OBRATU BEAR DAN

---

Ecusi det nola daquizun zer sinistu bear dezun, ta zer orazio eguin bear dezun, ecusi dezagun orain nola daquizun zer obratu bear dezun; Cristauac bezela ezan ezazu:

G. Zein da Jaungoicoaren legueco lenengo mandamentua.

E. Jaungoicoa amatzea gauza guzien gañean.

G. Norc amatzen du Jaungoicoa?

E. Aren mandamentuac gordetzen dituanac.

G. Zer da Jaungoicoa gauza guztien gañean amatzea?

E. Naigo izatea galdu bizitza Jaungoicoa ofenditu baño.

G. Zertara gueyago obligatzen du mandamentu onec?

E. Jaungoicoa bacarric adoratzea gorputzeco eta animaco reberenzi guztiarequin, sinisten eta esperatzen dala beragan fede osoarequin.

G. Norc eguiten du pecatu mandamentu onen contra?

E. Idoloac edo jaungoico falsoac adoratzen dituanac, eta aitan sinisten duanac.

G. Ta norc gueyago?

E. Aztequirietan edo gauza supertiziosoetan sinisten duenac,

G. Zein da bigarrena?

E. Juramentu alferric ez eguitea.

G. Norc eguiten du juramentu alferric?

E. Juramentu eguiten duanac eguia gabe, justicia gabe eta premia gabe.

G. Pecatu da juramentu alferra eguitea criaturacgatic?

E. Bai jauna, zergatic onetan eguiten zaion juramentu Criadoreari.

G. Zer erremedio da ez eguiteco juramentu alferric?

E. Acostunbratzea esatera bai edo ez Cristoc eracusten digun bezela.

G. Zein da irugarrena?

E. Jai egunac santificatzea.

G. Norc santificatzen ditu jai egunac?

E. Meza osoa entzun duanac ta

premia gabe ayetan bacarric lan eguiten ez duanac.

G. Zein da laugarrena?

E. Aita eta ama onratzea.

G. Norc onratzen ditu gurasoac?

E. Obedezitzen, socorritzen eta erreberentziatzen dituenac.

G. Norc aditzen dirade besteric gurasotzat.

E. Aundiagoac edadean, dignidadean eta gobiernoan.

G. Zein da bostgarrena?

E. Iñor ez iltzea.

G. Zer aguintzen da mandamentu onetan?

E. Ez eguitea iñori gaitzic ez itzez, ez obraz, eta ez desecz.

G. Zein da seigarrena?

E. Lujuriaco pecaturic ez eguitea.

G. Zer aguintzen da mandamentu onetan?

E. Izan gaitezela garbiac eta castoac pentsamentuetan, itzetan eta obretan.

G. Zein da zazpigarrena?
E. Ez ostutzea.
G. Zer aguintzen da mandamentu onetan?
E. Ez quentzea, ez iduquitzea eta ez nai izatea besteren gauzaric jabearen borondatearen contra.
G. Zein da zortzigarrena?
E. Testimonio falsoric ez jasotzea eta guezurric ez esatea.
G. Zer aguintzen da mandamentu onetan.
E. Ez eguitea projimuaren contra juizio gaiztoric, ez esatea eta ez aditzea aren faltac.
G Norc ausitzen du mandamentu au?
E. Arrazoyaren contra juzgatzen duanac, fama quentzen duanac, secretoa descubritzen duanac edo guezurra esaten duanac.
G. Zer eragosten da bederatziga-

rren eta amargarren mandamentuetan?

E. Desonestidadearen eta aziendaren deseoac.

M. Esan itzatzu Ama Eliza Santaren mandamentuac.

## AMA ELIZA SANTAREN

### Mandamentuac dirade bots

Lenengoa, igandeetan eta beste jayetan Meza osoa entzutea.

Bigarrena, urtean bein guchienaz confesatzea, edo lenago, iltzeco peligroric esperantzen badu.

Irugarrena, Pazcoa Resurreziocotan comulgatzea.

Laugarrena, Ama Eliza Santac aguintzen duanean barautzea.

Bostgarrena, amarrenac eta primiziac pagatzea.

G. Zertaraco dira mandamentu oec?

E. Obeto gordetzeco mandamentu dibinoac.

M. Esan itzatzu Obra misericordiazcoac.

## OBRA MISERICORDIAZCOAC

**dirade amalau, zazpi espiritualac eta zazpi corporalac**

### ZAZPI ESPIRITUALAC DIRADE OEC

Lenengoa, ez daquianari eracustea: bigarrena premia duanari conseju ona ematea: irugarrena, gaizqui eguiten duana correjitzea, laugarrena, injuriac barcatzea; bostgarrena, triste dagoana consolatzea: seigarrena, gure projimuen miseriac eta flaquezac pazienziarequin sufritzea: zazpigarrena, biziacgatic èta illacgatic Jaungoicoari erregutzea.

# ZAZPI CORPORALAC

## DIRADE OEC

Lenengoa, enfermoac bizitatzea: bigarrena, goseac dagoanari j ten ematea irugarrena, egarriac dagoanari edaten ematea: laugarrena, cautiboac errescatatzea; bostgarrena, larru gorrian dagoana jantzitzea: seigarrena, peregrinoari ostatu ematea: zazpigarrena, illac enterratzea.

G. Zergatic deitzen zaie obra misericordiazcoac?

E. Zergatic ez diraden zor juztiziaz.

G. Noiz obligatzen dute pecatu mortalaren azpian?

E. Guizon discretoen juizioan grabeac diraden nezesidadeetan.



# DOCTRINA CRISTIANAREN

**laugarren partea, zeñean declaratzen diraden Sacramentu errezibitu bear diradenac**

---

Ecusi det nola daquizun zer sinistu zer orazio eguin eta zer obratu bear dezun: ecusi dezagun orain nola daquizun zer errezibitu bear dezun, zeña dan azquenecoa. Esan itzatzo Ama Eliza Santaren sacramentuac.

**Ama Eliza Santaren Sacramentuac dirade zazpi**

Lenengo bostac dirade nezesarioac errezibitu bear diradenac obraz, edo deseoz, eta oec gabe ezin salba diteque guizona utzitzen baditu menospreciaz; beste biac dirade borondatezcoac. Lenengoa, bautismoa; bigarrena, confirmazioa; irugarrena, penitenzia; laugarrena, comunioa; bostgarrena, extremaunzioa: seigarrena, sacerdoteen ordena; zazpigarrena, matrimonioa.

G. Zer gauza dirade Sacramentuac?

E. Dirade señale batzuec eguin dituanac Jesucristo gure Jaunac emateco guri oequin bere grazia eta birtuteac.

G. Zer gauza da grazia?

E. Da izate dibino bat eguiten

duana guisonai Jaungoicoaren Seme eta zeruaren eredero.

G. Zer birtute ematen die sacramentubac graziarequin batean?

E. Prinzipalmente iru teologalac eta dibinoac.

G. Zein dirade?

E. Fedea, Esperantza eta Caridadea.

G. Zer gauza da fedea?

E. Sinistea icusi ez guenduena, zergatic Jaungoicoac ala errebelatu duen.

G. Zer gauza da esperantza?

E. Esperantzea gloria eta ondasun eternoac Jaungoicoaren graziaren eta gure obra onen medioz.

G. Zer gauza da caridadea?

E. Amatzea Jaungoicoa gauza guzien gañean, eta gure projimoa gueren buruac bezela, izaten guerala aequin, ayec gurequin izatea nai degun bezela.

G. Zertaco izandu zan eguiña Sacramentu Santu Bautismocoa?

E. Quentzeco pecatu originala ta bataiatzen danagan arquitzen dan beste edozein.

G. Zer gauza da pecatu originala?

E. Pecatu ura, zeñarequin jaiotzen gueraden, eredeturic gure lenengo gurasoetatic.

G. Zertaco da Sacramentu Santu confirmaziocoa?

E. Confirmatzeco eta ipintzeco fuerte bautismoan errezibitu guenduen fedean.

G. Zertaco da Sacramentu Santu Penitenziacoa?

E. Bataiatu ezquero eguindaco pecatuac barcatzeco.

G. Zer pecatu dira oriec?

E. Pecatu mortalac prinzipalmente, eta baita benialac ere.

G. Zer gauza da pecatu mortalac?

E. Da esatea, eguitea, pensatzea,

edo deseatzea zerbait gure Jaungoico Soberanoaren legue Santuaren contra gauza grabean.

G. Zergatic deritza mortala?

E. Zergatic iltzen duan eguiten duanaren anima.

G. Zer parte ditu penitenziac quentzeco pecatu mortala?

E. Iru jauna.

G. Zein dirade?

E Biortzeco contrizioa, aozco confesioa, eta obrazco satisfazioa.

G Pecatariac pecatu mortalen erortzen dan guzian bear du confesatu bereala pecatuac barcatzeco?

E. Ongi izango litzaque, baña ez da precisoa.

G. Zer eguin bear du bada?

E. Bere pecatuen dolore eguiazcoa eduquitzea enmendatzeco eta confesatzeco propposituarequin, Ama Eliza Santac aguintzen duanean.

G. Zer da pecatu beniala?

E. Da pecatu mortalaren disposizio bat.

G. Zergatic deritza beniala?

E. Zergatic erraz erortzen dan guizona artan, eta erraz barcatzen dan?

G Zenbat gauzegatic barcatzen da?

E. Bederatzigatic.

G. Zein dirade?

E. Lenengoa, meza entzuteagatic: bigarrena, comu'gatzeagatic: irugarrena, confesio generalagatic: laugarrena, Obispo aren bendizioagatic: bostgarrena, ur debeincatuagatic: seigarrena, ogui bedeincatuagatic: zazpigarrena, Aita gurea esateagatic: zortzigarrena, sermoia aditzeagatic: bederatzigarrena, pechuco golpeagatic, escatzen zaiola barcazioa Jaungoico gure Jaunari.

G. Zertaco da Sacramentu Santu Comuniocoa?

E. Errecibitzen degula bear dan dizposizioarequin, izan dedin gure animen mantenimentu eta aumenta ditzagun beraren graziac.

G. Zer errezibitzen da Sacramentu Santu onetan?

E. Jesucristo gure Jauna Jaungoico eta guizon eguiazcoa zeña dagoan eguiaz Sacramentu Santu aldarecoan.

G. Zertaraco da Sacramentu Santu Extremaunziocoa?

E. Iru gauzetaraco.

G. Zein dirade?

E. Lenengoa, bizitza gaizto pasatuaren arrasto eta reliquiac quentzeco: bigarrena, animari indarra emateco demonioaren tentazioen contra: irugarrena, gorpu-

tzari osasuna emateco conbeni basayo.

G. Zertaco da Sacramentu Santu Ordenacoa?

E. Consagratzeco eta ordenatzeco Elizaco Ministro dignoac nola dirade Sazerdoteac, Diaconcac eta beste gañeracoac.

G. Zertaco da Sacramentu Santu matrimoniocoa?

E. Ezcontzeco eta emateco ezconduai grazia, onequin bizi ditezen paquean eta criatu ditzaten semeac zeruraco.



# PECATU CAPITALAC

## DIRADE ZAZPI

Lenengoa, soberbia: bigarrena, abarizia: irugarrena, lujuria: laugarrena, ira: bostgarrena, gula: seigarrena, enbidia: zazpigarrena, naguitasuna.

G. Zergatic deitu diezu pecatu capitalac zazpi gueienean mortalac esaten zayenay?

E. Deitu diet capitalac zergatic diraden beste bizio ayetatic jayotzen diradenen buruac, iturriac eta sustrayac bezela, eta mortalac deitzea ez dator ain on

gui, bada ascotan ez dirade benialan baño geyago.

G. Noiz dirade mortalac?

E. Jaungoicoaren eta projimoaren caridadearen contra diradenian.

G. Noiz dirade caridadearen contra?

E. Aequin ausitzen danean Jaungoicoaren edo Elizaren mandamenturen bat gauza grabean.

G. Zer da soberbia?

E. Besteac baño gueyago izateco apetitu desordenatu bat.

G. Zer da abaricia?

E. Aziendaren apetitu edo deseo desordenatu bat.

G. Zer da lujuria?

E. Araguiaren gusto ziquiñez apetitu desordenatu bat.

G. Zer da ira?

E. Bengantzaren deseo desordenatu bat.

G. Zer da gula?

E. Jateco eta edateco deseo gueyegui bat.
G. Zer da enbidia?
E. Besteren onaren damutasuna.
G. Zer da naguitasuna?
E. Obra onac eguiteco animoaren palta.

## ZAZPI BIZIOEN CONTRA

### DIRADE ZAZPI BIRTUTE

Soberbiaren contra, umildadea abariziaren contra, liberalidadea; lujuriaren contra, castidadea: iraren contra, pazienzia: gularen contra, tenplanza: enbidiaren contra, dilijenzia.

### ANIMAREN ETSAYAC ZENETATIC

### igues eguin bear degun dirade iru

Lenengoa, mundua: bigarrena, demonioa: irugarrena, araguia.
G. Nola igues eguiten da munduagandic?

E. Despreziatzen dirala aren ponpac eta banidadeac.

G. Nola igues eguiten da demonioagandic?

E. Orazioarequin eta umildadearequin.

G. Nola igues eguiten da araguiagandic?

E. Mortificazioarequin, bijiliaquin eta barauaqui; eta au da etzairic aundiena, zergatic araguia ezin apartatu degun guregandic, baña bai mundua ta demonioa.

## Birtute teologalac dirade iru

Lenengoa, fedea: bigarrena, esperantza: irugarrena, caridadea.

## Birtute cardinalac dirade lau

Lenengoa, prudencia: bigarrena, justizia: irugarrena, fortaleza: laugarrena, tenplanza.

## Gorputzaren sentiduac dirade bost

Lenengoa, icustea beguiaquir: bigarrena, aditzea belarriaquin: irugarrena, guztatzea aoarequin: laugarrena, usai eguitea sudurrarequin: bosgarrena, uquitzea escuaquin.

G. Zertaco eman zizquigun Jaungoicoac sentiduac eta beste miembroac?

E. Guztiaquin serbitzeco aren dibina Majestadea.

## Animaren potenciac dirade iru

Memoria, entendimentua eta borondatea.

G. Zertaco eman zigun Jaungoicoac memoria?

E. Acordatzeco artzaz eta aren mesede aundiz.

G. Zertaco eman zigun entendimentua?

E. Ezagutzeco Jaungoicoa eta argan pentsatzeco.
G. Zertaco eman zigun Jaungoicoac borondatea.
E. Ama dezagun ontazun guztiaduna bezela, eta projimoa argatic.

## Espiritu Santuaren doalac dirade zazpi

Lenengoa, jaquindurico doaia: bigarrena, entendimentuco doaia: irugarrena consejuco doaia: laugarrena, fortalezaco doaia, bosgarrena, zienziaco doai: seigarrena, piedadeco doaia: zazpigarrena, Jaungoicoaren bildurtazuneco doaia.

## Espiritu Santuaren fructuac dirade amabi

Lenengoa, caridadea, bigarrena, paquea: irugarrena, animaren aunditasuna: laugarrena, benignidadea: bostgarrena, fedea: seiga-

rrena, continenzia: zazpigarrena, gozo espirituala: zortzigarrena, pazienzia: bederatzigarrena, ontasuna: amargarrena, mansedumbrea: amaicagarrena, modestia: amabigarrena, castidadea.

## BIENABENTURANTZAC

DIRADE ZORTZI

1. Bienabenturaduac pobreza escojitzen duanac, zergatic, aena dan zeruetaco reinua.
2. Bienabenturaduac mansoac zergatic aec izango diraden lurraren jabeac.
3. Bienabenturaduac negar eguiten duanac, zergatic aec izango diraden consolatuac.
4. Bienabenturaduac justiciaren gose ta egarria duanac, zergatic izango diraden contentatuac.
5. Bienabenturaduac misericor-

diosoac, zergatic aec alcantzatuco duen misericordia.

6. Bienabenturaduac biotz garbia duenac, zergatic aec icusico duen Jaungoicoa.

7. Bienabenturaduac paqueosoac, zergatic aec izango diraden deituac Jaungoicoaren semeac.

8. Bienabenturaduac juztiziagatic persecuzioa padezitzen duenac, zergatic aena dan zeruetaco reinoa.

G. Zer esan dituzu orain?

E. Zortzi bienabenturantzac

G. Zer gauza dirade bienabenturantzac?

E. Birtuteen eta Espiritu Santuaren doaien obraric onenac.

G. Nor dirade pobreza escojitzen duanac?

E. Nai es duenac onraric eta aberastasunic, chiquiac izanagatic ere

G. Nor dira mansoac?

E. Gorrotoric ez duenac, ezta aren mobimenturic ere.

G. Nola dira lurraren jabeac?

E. Beren buruen jaunac bezela.

G. Nor dirade negar eguiten duenac?

E. Guztoac utzitzen dituenac chiquienac izanagatic ere.

G. Nor dirade justiziaren gosea eta egarria duenac?

E. Cuidadoarequin obligazio duen guzia eguiten duenac.

G. Nor dirade misericordiosoac?

E. Piedade guztia duenac arrotzaquin ere.

G. Nor di ade bioiz garbi duenac?

E. Beren pazio guztietan mortificatzen diranac.

G. Nor dirade paqueosoac?

E. Paquea obratzen dutenac, berenetan eta besterenetan.

G. Nor dirade justiziagatic padezitzen dutenac?

E. Justizian firme daudenac, perseguituac izanagatic ere.

G. Zergatic deitzen zaie oiei Bicnabenturantzac?

E. Zergatic oetan dagoen bitzitza onetaco bienabenturantza eta bestecoaren esperantza.

M. Jaungoicoac eraman gaitzala guzioc ara.

E. Amen.

## CONFESIO GENERALA

Ni pecatariaconfesatzen naitzaio Jaungoico guziz poderosoari, Santa Maria beti Birjiñari San Miguel aingueruari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Pablo apostcluai, Santu guziai eta zuri aita espirituala zeren eguin dedan peca-

tu pentsamentuz, itzez, eta obraz, nere culpaz, nere culpaz, nere culpa chit andiz. Argatic erregutzen diot Santa Maria beti Birgiñari, San Miguel aingueruari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Pablo apostulai, Santu guziai, eta zuri, aita espirituala, erregutu deguiozula nigatic Jaungoico gure Jaunari. Amen.



## CONZIENZIA EGUNERO ESAMIÑATZECO MODUAC DITU BI DENBORA TA BOST PUNTU

## LENENGO DENBORA

Goizean esnatzen danean, jasoco du biotza Jaungoicoagana eta ofrezituco dizca egun artaco pensamentuac, itzac eta obrac: proponituco du, edo artuco du propösituac, ez ofenditzeco aren dibina Majestadea, ta escatu aun cumplitzeco grazia.

## BIGARREN DENBORA

Arratsean oera etzin baño lenago jarrico da belaunico, esango du Confesio generala eta eguingo du emen esaten dana.

## LENENGO PUNTUA

Emango diozca graziac Jaungoicoari mesede errezibitu dituerac-gatic nola diraden, zergatic criatu zuan redimitu zuan, cristau eguin zuan, eta conserbatzen duan particularmente berari eguin diozcan mesede principalagatic, zeñagatic dion esagüera particularra.

## BIGARREN PUNTUA

Escatuco dio aren dibina Majestadeari arguia ta grazia ezagutzeco egun artaco faltac.

## IRUGARREN PUNTUA

Juango da pentzatzen esnatu

zanetic ordu artarano, zeñean arquitzen dan, pentsatzen duala ordutic ordura, pensamentuz, itzez ta obraz, zer eguin, esan eta pentsatu duan.

## LAUGARREN PUNTUA

Ateraco ditu garbiro obra on eguin dituanac eta emango diozca graziac Jaungoicoari aecgatic.

## BOSTGARREN PUNTUA

Artuco du damutasuna biotzetic eguin dituen falta guziena ta escatuco dio Jaungoicoari aen barcazioa, proponitzen duala emendatzea, eta eguingo du acto contriziozcoa seguitzen dan moduan.

## ACTO CONTRIZIOZCOA

Nere Jesucristo Jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcoa, nere Criadorea ta Redentorea, zu

zerana izanagatic eta zergatic amatzen zaitudan beste gauza guztiac baño gueyago, damu det, Jauna, nere biotz guztitic zure dibina Majestadea ofenditua, artzen det propositu firmea ez gueiyago pecaturic eguiteco eta apartatzeco zure ofentzaco ocasio guztietatic, eta confesatzeco eta cumplitzeco penitenzia: ofrezitzen dizquitzut, Jauna, nere bizitza, obrac eta trabajuac nere pecatuen satisfazioraco, eta nola suplicatzen dizudan ala daducat confiantza zure ontasun eta misericordia infinituagan barcatuco dizquidazula zure odol precioso, pasio eta eriotzaren merezimentuacgatic, eta emango didazula grazia emandatzeco eta perseberatzeco nere bizi guztian. Amen Jesus.



# ENCARNAZIOCO

## MISTERIOAREN ESPLICAZIOA

G. ZERTAN consistitzen da Encarnazioco misterioa?

E. Trinidade santisimoco bigarren Persona zeña dan Semea guizon eguitea Maria Santisimaren entraña garbietan, guizonaren obra gabe, baizican Espiritu Santuaren obraz guelditzen za-

la Señora au Birgiña, Semea eguin baño len, eguitean eta eguin ezquero.

G. Zer obra eguiten zuan Espiritu Santuac?

E. Formatu zuan Maria Santisimaren entrañetaco odol garbiarequin Jesucristo gure Jaunaren gorputza, criatura zuan anima, unitu zuan anima gorputzarequin, anima ta gorputza unitu zituan Semearen personarequin eta au izandu zan eguitia Jaungoicoa guizon.

G. Obra marabilloso au Espiritu Santuac bezela etzuten eguin Aitac eta Semeac ere?

E. Bai jauna, irurac eguin zuten.

G. Zergatic esaten da bada izandu zala Espiritu Santuaren obraz?

E. Zergatic izan zan amoriozco obra ta amorioa atribuitzen za-

yo Espiritu Santuari, Aitari poderea ta Semeari sabiduria bezela; baña iru personac, Jaungoico guztiz pederoso batec bezela, eguin bazuten ere obra soberano au, Semeac bacarric artu zuan guizonaren naturaleza: onegatic ditu Semeac bi naturaleza, bata dibinoa Jaungoicoa dan partetic, ta bestea umanoa guizona dan partetic, eta Aitac eta Espiritu Santuac ez dute Jaungoicoaren naturaleza baizic.

G. Zembat entendimentu ditu Cristoc?

E. Bi, bata dibinoa Jaungoicoa dan partetic, eta bestea umanoa guizona dan partetic.

G. Zenbat borondate ditu Cristoc?

E. Bi, bata dibinoa Jaungoicoa dan partetic, eta bestea umanoa guizona dan partetic.

G. Zenbat persona arquitzen dira Cristogan?

E. Bat bacarra, ta au da Persona dibinoa, bada persona umanoric ez da arquitzen Cristogan.

G. Zenbat memori ditu Cristoc?

E. Bat, eta au da guizona dan partetic, zergatic Jaungoicoa dan partetic, gauza guztiac dauzca presente, ez du memorian bearric.

G. Cristoc badu aitaric edo amaric?

E. Jaungoicoa dan partetic badu Aita, zeña dan Aita Eternoa, Trinidade Santisimoco lenengo persona, eta ez du amaric; eta guizona dan partetic du ama, zeña dan Maria Santisima eta ez du aitaric.

G. Cristo Jaungoicoa dan partetic, edo guizona dan partetic izandu zan lenago?

E. Jaungoicoa dan partetic izandu zan ascoz lenago guizona dan partetic baño, zergatic Cristoc Jaungoicoa dan partetic ez du asieraric eta denboraric Jaungoico izandu ez danic; baña guizona dan partetic izandu da denbora Cristo izandu ez dana.

G. Nun dago Cristo?

E. Jaungoicoa dan partetic dago lecu guzietan, baña guizona dan partetic ez dago zeruan eta aldareco Sacramentu Santuen baizic.





# SACRAMENTU SANTU

## Aldarecoaren esplicazioa

G. Zer dago aldareco Sacramentu Santuan?

E. Dago Jesucristo gure Jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcoa zeruan dagoan bezela.

G. Zer dago ostian consagratu baño lenago?

E. Ogui pisca bat.

G. Eta zer dago consagratu ezquero?

E. Dago Jesucristo gure Jaunaren gorputza, eta nola gorputza dagoan biziric ta unituric Jaungoicoaren Semearen personarequin badago odola ere, baita anima, Jaungoicotasuna ta iru persona dibinoaç ere.

G Zer dago Calizan consagratu baño lenago?

E. Ardo puruba ur tanto batequin.

G. Eta zer dago consagratu ezquero?

E. Dago Jesucristo gure Jaunaren odola, ta nola dagoan gorputzarequin unitaric, badago gorputza ere, baita anima Jaungoicotasuna ta iru persona dibinoac ere, alaco moduan non Jesucristo guzia dago Ostian eta Jesucristo guzia dago Calizan.

G. Ecusten da Jesucristo gure Jauna Sacramentu Santu onetan?

E. Ez da ecusten oguiaren eta ardoaren colorea ta beste aczidenteac baizic, baña an ez dago oguiric eta ardoric sazerdoteac consagrazioco itzac esan ezquero.

G. Ostia consagratuaren erdia edo parte bat errezibitzen duanac errezibitzen du Jesucristo guzia?

E. Guziu errezibitzen du, enteroa edo oso, bada aren dibina Majestadea ainbeste dago Ostiaren parteric chiquienean nola Ostia guztian, zergatic partitzen bada ere sazerdoteac Ostia consagratua pusca ascotar, ez da partitzen Jesucristo gure Jauna, bai zican guelditzen da osoa partea bacoitzean, ain aundia edo osoa partea chiquian nola aundian.

G. Zenbat gauza bear dira ondo comulgatzeco?

E. Iru, jauna.

G. Zer dirade?

E. Lenengoa, zer errezibitu bear duan jaquitea. Bigarrena, barau naturalcan egotea. Irugarrena, Jaungoicoaren grazian egotea.

## ORAZIOA

### Comulgatzera dijoanean esateco

Nere Jaun eta Jesús dulzea, nic, deseatzen det zure dibina Majestadea errezibitzea espiritu garbi eta caridadearequin, zeñarequin errezibitu zinduzten zure Ama Birgiña Santísimac eta Zeruco Santu guziac. Amen.

## ORAZIOA

### Comulgatu ezquero esateco

O zeruetaco eta lurreco Jaun Soberanoa! ¿Zer merezimentu izan-

du det nic etortzeco nigana ain Jaun andia? !Bedeincatua izan dedilla zure ontasun eta misericordia! Zergatic eguiten diozun ainbeste mesede zure criatura oni. Aingueruac eta criatura guziac bedeinca zaitzatela. Jauna, piedade aundi onegatic. Amen.

## ESPLICATZEN DIRADE

### Confesio onaren condizioac

---

G. Cenbat dirade confesio onaren condizioac?

E. Bost, jauna.

G. Zein dirade?

E. Lenengoa, esamiña; bigarrena, dolorea; irugarrena, propositua; laugarrena, confesioa; bostgarrena satisfazioa.

G. Zer gauza da esamiña?

E. Pecatu eguin dituanac memoriara ecartzea, confesatzeco guztiac.

G. Zenbat denbora bear da pecatuac memoriara ecartzeco?

E. Ez da denbora señalaturic, baizican bere capazidadearequin eta denbora confesatu gabe egon danarequin conforme bear du artu denbora bear duan guzia, eta ipiñi negozio importantzi aundico batean ipintzen dan cuidadoa, zergatic au da eguitecoric importanteena.

G. Nundic ecarrico ditu pecatuac memoriara?

E. Jaungoicoaren legueco mandamentuetatic, eta Eliza Ama Santuarenetatic, consideratzen duala zer mandamentuaren contra eguin duan pecatu eta zenbat

bider, bere personaren estadu, oficio edo enpleoarequin conforme, ateratzeco onela garbiro contuac pecatu pentsamentuz, itzez ta obraz eguin dituenenaz.

G. Zer gauza da dolorea?

E. Jaungoicoa ofendituiaco damutasuna.

G. Zenbat modutan da dolorea?

E. Bitan, batari deritza contrizioa ta besteari atrizioa.

G. Zer gauza da contrizioa?

E. Da Jaungoicoa ofenditutaco damutasuna, izanagatic aren dibina Majestadea dan bezin ona, Santua eta amablea.

G. Zer gauza da atrizioa?

E. Jaungoicoa ofenditatuco damutasuna pecatuaren itsusitasunagatis edo zergatic pecatua dala mediante aparta gaitzaquean zeruco gloriatic eta castigatu in-

fernuco penaquin.

G. Zeiia da do'ore oetan bietan onena?

E. Contrizioa da ascoz obea atrizioa baño, zergatic acto contriziozco eguiazcoa eguiten duanari confesatzeco propposituaquin barcatzen zaizca pecatuac confesatu baño lenago eta acto au eguiten duan instante artan guelditzen da Jaungoicoaren grazian bañan atriziozco actoa eguiten daunari etzaizca barcatzen pecatuac confesiyoco sacramentuarequin batea baizic, eta onegatic balijoaz confesatzera persona bi bata contrizioaren doloreareqnin eta bestea atrizioarequin eta biac ilco balira confesatu, baño lenago, contrizioarequin d joana salbatuco litzaque eta condenatuco litzaque atrizioarequin dijoana.

G. Pecatu mortalean dagona arquituco balitc iltzeco peligroan eta confesore gabe, nola libratuco litzaque pecatutic?

E. Acto contriziozco bat eguinda.

G. Zer gauza da propositua?

E. Da determinazio firme bat, ez bere bisitzaco denbora guztian beñere pecaturic eguiteco eta apartatzeco pecatu eguiteco ocasio guztietatic.

G. Apartatzen ez danac pecatu eguiteco ocasiotic apartatu alditequela, daduca propositu eguiascoa?

E. Ez jauna, baizican falsoa.

G. Zer aditzen dezu confesioagatic?

E. Confesatzea pecatu mortal guziaz utzi gabe batere lotsaz confesatu gabe.

G. Bada pecatu benialac confesatzeco obligazioric.

E. Obeagoa da confesatzea, baña ez da obligazioric.

G. Pecatu mortal bat confesatzea astutzen bazayo eguingo du confesio ona?

E. Eguingo du confesio ona ezpazayo aztutzen esamiñaren faltaz, baño izango du obligazioa confesatzeco urrengo confesioan pecatu astutzen zayona.

G. Pecatu mortal bat lotzez confesatu gabe utziztzen duana, salba diteque beste penitenzi quin?

E. Ezin salba diteque eguingo balitu ere Santu guziac eguin zituenbaño penitentzi gueyago.

G, Arquitzen bada pecataria pecatu chit grabea eta ichusibatequin edo ascorequinbillatuco du erremedioa Erromara joan gabe?

E. Edozeiz confesore billatuco

dío erremedioa Erromara joan-gabe.

G. Acusa dezaque confesoreac penitentea juztiziara?

E. Ezin acusa dezaque biziric dagoala erreco balute ere.

G. Beraz ez da escusaric bat ere pecatuac confesatu gabe utzitzeco?

E. Ez jauna, eta confesatzen ez dituana bere culpaz condenatuco da erremedio gabe.

G. Zer gauza de satisfazioa?

E. Pagatutzea penitentzioaco cobraquin pena pecatuagatic zor dana.

G. Zertan consistitzen da satisfazio au?

E. Confesoreac ematen duen penitenziac azeptatzen eta cumplitzean.

G. Penitenzia azeptatzen duanac cunplitzeco intenzioarequin egui-

ten du confesio ona ezpadu cunplitzen?

E. Bai jauna, baña cunplitu gabe utzitzen duanac penitenzia grabea bada, eguiten du pecatu mortala eta gelditzen da obligazioarequin pecatu au confesatzeco urengo confesioan.

## Confesatzea dijoanean esateco

## Oracioa

Jauna altu eta Soberanoa, ta Jaungoico eternoa. Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua. Nic sinisten det firmemente, emango diezula premio onai, eta castigau gaiztoai. Baducat nere pecatu guztien damutasuna, zu zerana izanagatic eta zergatic amatzen zaitudad beste gauza guztiac baño gueyago Proponitzen det firmeza guztiarequin emendatzea zure grazi dibinoarequin, eta nai det cunpli-

tu penitenzia confesoriac emanten dirana. Eta baducat esperantza zure ontasun eta misericordia infinituagan parcatuco bidazula eta salbatuco nazula nere Jesucristo Jaunaren merezimentu aundiagatic. Amen Jesus.

### Confesatu ezquero esateco

### Orazioa

Ematen diozcat grazi asco gure Jesucristo Jaunari, zergatic utzi zirad onen erremedio erraza eta suabea nere pecatuen barcazioa alcantzatzeco; eta proponitzen det ez geyago aren dibina Majestadea ofenditzea. Amen.

# ACTO FEDECO, ESPERANZACO TA CARIDADECOAC, ZEÑAC EGUIN BEAR DIRADEN URTEAN BEIN GUCHIENAZ

## Fedeco Actoa

SINISTEN det dala Jaungoico eguiazco bat eta iru Persona diferenteac, zeñac diraden Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua. Sinisten det Trinidade Santisimoco bigarren Persona eguin zala Guizon María santisimaren entraña garbietan Espiritu Santuaren obraz eta birtutez, guelditzen zala Señora Soberana au Birgiña, Semea eguin baño len, eguitean, eta eguin ezquero, Sinisten det Juan onec padesitu zuala, ta il zala gu salbatzeagatic, piztu zala illen artetic irugarren egunean, igo zala zeruetara, eta etorrico dala biziac eta illac juzgarzera: au da, onac pre-

miatzera eta gaiztoac castigatzera. Sinisten det Aldareco Sacramentu Santuan dagoala Jesucristo gure Jauna, Jaungoico eta Guizon eguiazcoa zeruan dagoan bezela. Sinisten det Ama Eliza Santa Catolicoa, Erromacoac sinisten duan guztia eta fede onetan nai det bizi eta il.

### Esperantzaco Actoa

DADUCAT esperantza Jaungoicoagan barcatuco dizguidala nere pecatu guziac eta emango dirala bere grazia eta gloria bere misericordia infinituacgatic, Jesucristo nere Jaunaren merezimentuagactic, eta aren Ama Santisimaren erreguacgatic, eguiten badet nere partetic obligazio dedana, eta eguin dezaquedana, zeña dan penitentzi eguiazcoa.

## Caridadezco Actóa

AMATZEN det Jaungoicoa beste gauza guztiac baño gueyago, eta nayago ditut galdu guztiac aren Dibina Majestadea ofenditu baño. Eta nai nuque amatu munduco justu guztiac, zeruco bienabenturaduac eta serafin guztiac amatzen duen bezela. Eta posible balitz, nay nuque amatu beraren Ama eta nere Señora Maria Santisimac amatzen duan bezela. Ez amatua, ofenditua izatea ainbezte, ofenditzen dutedac, eta guztiac ez amatzea aren dibina majestadea, bere dana izanagatic, damudet nere biotz guztitic eta proponitzen det emendatzea aren grazia mediante dala. Amen Jesus.



# MARIA SANTISIMAREN LETANIAC

Kyrie, eleyson.
R. Kyrie eleyson.
Christe eleyson.
R. Christe eleyson.
Kyrie eleyson.
R. Kyrie eleyson.
Christi audi nos.
Christi exaudi nos.

Pater de cælis Deus,
Fili Redémptor mundi Deus,
Spiritus sancte Deus,
Sancta Trinitas unus Deus,
} Miserere nobis

| | |
|---|---|
| Sancta Maria,<br>Sancta Dei Génitrix,<br>Sancta Virgo Vírginum,<br>Mater Christi,<br>Mater divinæ grátiæ,<br>Mater purissima,<br>Mater castissima,<br>Mater invioláta,<br>Mater intemeráta,<br>Mater immaculáta,<br>Mater amábilis,<br>Mater admirábilis,<br>Mater boni Consilii,<br>Mater Creatóris,<br>Mater Salvatóris,<br>Virgo prudentísima,<br>Virgo veneranda,<br>Virgo prædicanda,<br>Virgo potens,<br>Virgo clemens,<br>Virgo fidelis,<br>Speculum justitiæ,<br>Sedes sapiéntiæ,<br>Causa nostræ lætitiæ,<br>Vas spirituale,<br>Vas honorábile, | ORA PRO NOBIS |

Vas insigne devotionis,
Rosa mystica,
Turris Davídica,
Turris ebúrnea,
Domus áurea,
Fæderis arca,
Jánua cæli,
Stella matutina,
Salus informorum
Refúgium peccatórum,
Consolátrix aflictórum,
Auxilium Christianórum,
Regina Angelórum,
Regina Patriarchárum,
Regina Prophetárum,
Regina Apostolórum,
Regina Mártyrum,
Regina Confessorum,
Regina Vírginum,
Regina Sanctórum ómnium,
Regina sine labe originali
concepta,
Regina sacratíssima Rossarii,
Regina pacis,

ORA PRO NOBIS

V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.

R. *Parce nobis Domine.*

V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.

R. *Exaudi nos Domine.*

V. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.

R. *Miserere nobis.*

V. Ora pro nobis sancta Dei Génitrix.

R. Ut digni efficiamur promisiónibus Christi.

## OREMUS

Gratiam tuam quæsumus, Dómine, mentibus nostris infunde, ut qui, Angelo nuntiante Christi Filii tui incarnationem cognovimus, per Pasionem ejus et Crucem ad Resurrectionis gloriam perducamur Per eundem Christum Dóminum nostrum. Amén.



## Meza laguntzeco modua

*Apaizac.* In nomine Patris, et Filii, et Spiritus Sancti. Amen. Introibo ad Altare Dei.

*Laguntzalleac.* Ad Deum qui lætificat juventutem meam.

Ap. Judica me, Deus, et discerne causam de gente non sancta, ad homine iniquo et doloso erue me.

*Lag.* Quia tu es, Deus, fortitudo mea, quare me repulisti? et quare tristis incedo, dum affligit me inimicus?

*Ap.* Emitte lucem tuam et veritatem tuam, ipsa me deduxerunt, et abduxerunt in montem sanctum tuum et in tabernacula tua.

*Lag.* Et introibo ad Altare Dei ad Deum qui lætificat juventutem meam

*Ap.* Confitebor tibi in cithara,

Deus, Deus, meus, quari tristis es anima mea, et quare conturbas me?

*Lag.* Spera in Deo, quoniam adhuc confitebor illi, salutare vultus mei et deus meus.

*Ap.* Gloria Patri, et Filio, et Spiritu sancto.

*Lag.* Sicut erat in principio, et nunc et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

*Ap.* Introibo ad Altare Dei.

*Lag.* Ad Deum qui lætificat juventutem meam.

*Ap.* Adjutorium nostrum in nomine Domini.

*Lag.* Qui fecit cælum et terram.

*Ap.* Confitebor Deo omnipotenti... et vos fratres orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

*Lag.* Misereatur tui omnipotens Deus, et dimissis peccatis tuis, perducat te ad vitam æternam.

*Ap.* Amen.

*Lag.* Confiteor Deo omnipotenti, Beatæ Mariæ semper Virgini, Beato Michaeli Archangelo, Beato

Joanni Baptistæ, sanctis Apostolis Pedro et Paulo omnibus Sanctis et tibi Pater, quia peccavi nimis cogitatione, verbo, et opere, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor beatam Mariam semper Virginem, beatum Michaelem Archangelum, beatum Joannem Baptistam, sanctos Apostolos Petrum et Paulum, omnes Santos et te Pater, orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

*Ap.* Misereatur vestris omnipotens Deus, et dimissis peccatis vestris, perducat vos ad vitam æternam.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Indulgentiam, absolutionem et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis omnipotens, et misericors Dominus.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Deus, tu conversus vivificabis nos.

*Lag.* Et plebs tua lætabitur in te.

*Ap.* Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

*Lag.* Et salutare tuum da nobis.

*Ap.* Domine, exaudi orationem meam.

*Lag.* Et clamor meus ad te veniat

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritus tuo.

*Ap.* Kyrie eleyson.

*Lag.* Kyrie eleyson.

*Ap.* Kyrie eleyson.

*Lag.* Christe eleyson

*Ap.* Christe eleyson.

*Lag.* Christe eleyson.

*Ap.* Kyrie eleyson.

*Lag.* Kyrie eleyson

*Ap.* Kyrie leyson.

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Per omnia sæcula sæculorum.

*Lag.* Amen.

*Epistola acabau ta.* R. Deo gratias

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Sequentia Sancti Evangelii secumdum...

*Lag.* Gloria tibi, Domine.

*Evangeliyua acabau ta.*

*Lag.* Laus tibi, Christe.

*Ap.* Orate frates...

*Lag.* Suscipiat Dominum sacrificium de manibus tuis ad laudem et gloriam nominis sui, at utilitatem quoque nostram, totiusque Eclesiæ suæ sanctæ.

*Ap.* Amen.

*Prefaziyoa exaten danian.*

*Ap.* Per omnia sæcula sæculorum.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Sursum corda.

*Lag.* Habemus ad Dominum.

*Ap.* Gratias agamus Domino Deo nostro.

*Lag.* Dignum et justum est.

*Pater nosterra esan ezquero.*

*Ap.* Et ne nos inducas in tentationem.

*Lag.* Sed libera nos a malo.

*Ap.* Pax domini sit semper vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Ite, Missa est. *(edo)* Benedicamus Domino.

*Lag.* Deo gratias.

*Ap.* Requiescant in pace.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Benedica vos omnipotens Deus, Pater, et Filius, et Spiritus Sanctus.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum Spiritu tuo.

*Ap.* Sequentia sancti Evangelii secundum etc.

*Lag.* Gloria tibi, Domine.

*Evangelioa acabatuta.*

*Lag.* Deo gratias.

**Laus Deo.**